



2022ko urriaren 28ko EBAZPENA, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaarena, zuzendaritza-eginkizuna betetzeko beharrezkoa den hasierako eta etengabeko prestakuntzaren esparrua ezartzen duena eta zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifiko eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifiko arautzen dituena 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako.

XXI. mendeko eskola-zuzendaritzak indarrean dagoen araudian jasotako eginkizunetatik harago doazen kompetentziak eta lidergo-estilo berriak eskatzen ditu, zeren zuzendaritza-taldeen rola funtsezko elementua baita hezkuntzaren kaliterako. Horregatik, hezkuntza-lidergoaren arloko rol berriak sustatzea ahalbidetzen duten erregulazio berriak behar dira, euskal hezkuntza-sistemak dituen erronkei aurre egin ahal izateko. Testuinguru horretan, beharrezkoa da zuzendaritza-taldeak proiektu komunitario eta kolektibo baten lider bihurtzea, ikaskuntzen kalitatea eta etengabeko hobekuntza sustatzeko xedez.

Horregatik, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe publikoen zuzendaritza-eginkizuna sakonago jorratzea, orain dauden erronkak identifikatu ahal izateko eta horiei heltzera zuzendutako ekintzak inplementatzeko; era horretan, aurrera egin ahal izango dugu kalitatezko eskola-zuzendaritzaren bidean, berau hezkuntza publikoa hobetzeko palanka gisa funtzionatu dezan.

Zalantzarik gabe, oraingo erronketako bat da zuzendaritza-taldeak profesionalizatzen lagunduko duen prestakuntza integralerako programa bat egitea, honako fase hauek barne sartuta: aurretiko prestakuntza, hasierako eta etengabeko prestakuntza, eguneraketara zuzendutakoa eta perfektionamendura zuzendutakoa. Prestakuntza horrek dimentsio hauek hartu behar ditu oinarritzat: estrategiaren garapena (ikuspegia, helmugak, ekintza- eta hobekuntza-planak...); ikastetxearen gizarte-kapitalaren garapena sustatzeko estrategiak (pertsonek eta gatazken kudeaketa; parte-hartzea eta ikaskuntza-komunitateen sorrera sustatzeko estrategiak; komunikazio eraginkorrerako eta pertsuasiorako kompetentzien garapena; jarduna ebaluatzeko tresnen inguruko ezagutza praktikoa; feedbacka, etab.). Azken batean, eskola-lidergo eraginkorrerako kompetentzien garapena lehenesten duen prestakuntza-programa bat behar da.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Saila estrategia berri bat garatzen ari da EAEko ikastetxe publikoen hezkuntza-lidergorako.

Orobat, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (LOMLOE) –lege horrek hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen du- zenbait aldaketa egin ditu ikastetxe publikoetako zuzendariak aukeratzeko prozesua erregulatzen duen oinarritzako araudian. Arau-aldaketa horien aurrean, eta lehen aipatu dugun hezkuntza-lidergoari buruzko estrategia berria erreferentziatzen hartuta, Hezkuntza Saila Dekretu berri bat tramitatzen ari da horren inguruan, zuzendaritza-eginkizunerako sarbidea eta EAEko ikastetxe publikoetako zuzendarien eta zuzendaritza-taldeen prestakuntza, ebaluazioa eta aintzatespena arautzeko.

Ikerketek frogatu dutenez, eskola-zuzendaritzak baldintza estruktural eta kompetentzia egokiak izatea ikasleen ikaskuntzaren hobekuntzan eragin handiena duen bigarren faktorea da (irakasleek ikasgeletan egiten duten lanaren atzetik).

Behin eta berriz egiten diren arau-erregulazioetatik harago, Euskadiko eskola-zuzendaritzaren jardunbide onaren ezaugarri diren kompetentzia profesionalak jasotzen dituen erreferentziatzko Esparru egonkor bat behar da, hots, inplikaturako ekipo eta profesionalen berek jardunbide egokien “kodetzat” hartzen dutenaren adierazpide bat. Eskola-zuzendaritzaren jardun profesionalaren “erregulazio komun” bihurtuko den esparru bat, profesionalizazio gero eta handiagora daraman bidean.



Beharrezkoa da ikuspegiz aldatzea: zuzendaritza-taldeen zeregin edo eginkizunetan zentratu beharrean, zuzendaritza-lan "onarekin" lotutako konpetentzia eta jardunbide profesionalak zehaztean zentratu behar gara, nazioarteko joerekin eta ikerketek zuzendaritzaren praktika arrakastatsuez erakusten dutenarekin bat datorren profil profesional bat eta jarduteko modu bat itxuratuz.

Konpetentzia-proposamen honek bi ondorio ditu: alde batetik, zuzendaritzaren jardun profesionalak konpetentzia multzo espezifiko bat behar duela; eta, bestetik, konpetentzia horiek modu egokian ikasi eta garatu daitezkeela prestakuntza, aholkularitza eta akonpainamendu egokiaren bitartez.

Hezkuntza-administrazioak sare eta aliantzatan kolaboratzearen alde egin behar du, zeren ikastetxeen isolamenduak ez baitu ahalbidetzen, normalean, jardunbide egokien trukea. Premiazkoa da zuzendaritza-taldearen rola indartzea, baina ez ildo administratibo-burokratikoetik, baizik eta lidergo pedagogiko eta banatuaren ildotik, ikasleen ikaskuntzaren hobekuntzan inpaktua duen benetako eraldaketa bat ikastetxean aurrera eraman ahal izateko.

Zuzendaritza-taldeen prestakuntza funtsezkoa da ikastetxeen funtzionamendu egokirako eta hezkuntza-komunitateak behar eta espero duenari kalitatezko erantzuna emateko.

Hori horrela, beharrezkoa da zuzendaritza-taldeengana zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza erregulatzea 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturtetarako, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak aukeratzeko merezimendu-lehiaketatik ondorioztatzen diren izendapen berriak egin arte.

Horren ondorioz,

EBATZI DUT:

1. Artikulua - Helburua eta jarduera-eremua.

1. Ebazpen honen helburua da zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntzaren esparrua ezartzea eta Programa hauen antolaketa, edukiak eta ebaluazio-irizpideak garatzea: *Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa* (aurrerantzean: ZEB_HPPE) eta *Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoa* (aurrerantzean: ZEB_KEPPE).

2. Jarduera-eremua Hezkuntza Sailaren titulartasunekoak diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko guztiak dira, salbuespen hauekin: Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak, eta Erreferentzia Nazionalako Lanbide Heziketako Ikastetxeak, horiek euren araudi espezifikoaren arabera jardungo baitute.

2. Artikulua. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntzaren esparrua.

1. Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko prestakuntzaren funtsezko helburua da hezkuntza hobetzen laguntzea, zuzendaritza-taldeen behar duten hasierako eta etengabeko prestakuntza uztartuz, oraingo gizartearen behar eta eskakizun berriei aurre egiteko, euren jardun profesionala, ikaskuntza, sustapena eta lan-gogobetetasuna hobetzeko dituzten itxaropenei eman behar zaien erantzunarekin.

2. Azken batean, zuzendaritza-taldeen hasierako zein etengabeko prestakuntza zuzendaritza-praktikarantz eta -jardunerantz bideratu behar da, ikasleen hezkuntzaren hobekuntzaren funtsezko



elementu gisa, hori guztia ezagutza tekniko eta profesionalak eguneratzeko testuinguruan, zuzendaritzaren, hezkuntza-kudeaketaren eta ikastetxeko lidergoaren ikuspuntutik.

3. Zuzendarien hasierako prestakuntza ZEB_HPPE deritzan prestakuntza-programaren bitartez erregulatzen da; eta etengabeko prestakuntza ZEB_KEPPE prestakuntza-programaren bitartez.

4. Hasierako prestakuntza-programa espezifikoak eskaintzen dira pertsona bakarreko gobernu-organoentzat, zuzendari ez direnak eta zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasten direnak. Halaber, eguneratze-programa espezifikoak eskaintzen dira gobernu-organo horientzat.

3. Artikulua. ZEB_HPPE eta ZEB_KEPPE Prestakuntza-programen ezaugarri orokorrak.

1. Prestakuntza-programen helburua da irakasleek eskuratu ditzatela zuzendaritza-eginkizuna eta lidergo pedagogikoa betetzeko beharrezkoak diren konpetentziak, hots, ebazpen honetako I. Eranskinean ageri diren konpetentziak.

2. Zuzendaritzaren arloko konpetentziak ikasteko eta eguneratzeko programa espezifikoak zenbait motatako prestakuntza-jardueratan egituratuko dira. Prestakuntza-jarduera horiek mota eta modalitate desberdinetan zehaztuko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta: jardueraren zentzua eta helburuak, haien plangintza, jardueraren dinamika eta barne-egitura, eta haien garapenerako lehenesten diren estrategiak.

Programa espezifiko horien prestakuntza-jarduerak prestakuntza-ibilbidetan antolatu ahal izango dira, euren edukiaren arabera, eta honela sailkatzen dira haien aintzatespen, ziurtapen eta erregistroari begira: *ikastaroak, mintegiak, praktika-komunitateak, prestakuntza-topaketa monografikoak, nazioartekotze-programak, prestakuntza-egonaldiak beste ikastetxe batzuetan, eta hezkuntza-arlokoak ez diren inguruneetan lidergoa duten pertsonen arteko topaketak*. II. Eranskinean, prestakuntza-jarduera mota bakoitzaren ezaugarriak jasotzen dira.

3. Beste alde batetik, prestakuntza-jarduera horietako batzuk derrigorrezkoak izango dira ZEB_HPPE eta/edo ZEB_KEPPE Programa espezifikorako/espezifikoetarako, eta beste batzuk hautazkoak, eskaria egiten duen pertsona bakoitzak bere beharretarako egokiena den prestakuntza-ibilbidea egin dezan.

4. Prestakuntza-jarduerak barne hartuko dituzte, hala dagokionean, aplikazio praktikoak, mekanismoak eta ebaluazio-adierazleak, bidea ematen dutenak lortutako banakako helburuen jarraipena eta balorazioa egiteko, aurreikusitako ikaskuntza-eraketak eta prestakuntzak zuzendaritza-eginkizunean duen eraginari dagokienez; halaber, ikastetxeen hobekuntzan eragina duten esku-hartzerako estrategiak ere hartuko dituzte barne.

Modalitate bakoitzean, prozedura presentzialen, erdi-presentzialen eta online prozeduren bidez parte hartu ahal izango da.

5. ZEB_HPPE prestakuntza-programaren gutxieneko iraupena 120 ordukoa izango da. ZEB_KEPPE prestakuntza-programaren gutxieneko iraupena 60 ordukoa izango da.

6. Programak prestakuntza-jarduera guztiak metatzen dituen bloke bakar batean egin daitezke, edo



programa bereko prestakuntza-jarduerak modu banatuan metatuz, gehienez bi urteko epean.

7. Gainditutako prestakuntza-programek baliozkotasun mugagabea izango dute. Nolanahi ere, dagokion kalifikazioa eman denetik zortzi urteko epea igarotzen denean, zuzendaritza-eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren konpetentzien xede diren edukiak eguneratu egin beharko dira, eguneratze-programa gainditzearen bidez.

8. Programek aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko araudia beteko dute, honako gai hauei dagokienez: ebaluazioa, metodologia, antolaketa, baliabide materialak eta giza baliabideak, espazioak eta ekipamenduak.

4. Artikulua. Prestakuntza-programen betekizun orokorrak: ZEB-HPPE eta ZEB_KEPPE prestakuntza-programak

1. Programetan parte hartu dezakete Hezkuntza Sailburuordetzaren kudeaketa-eremuan diharduten eta ondoren aipatutako betekizunak betetzen dituzten funtzionarioek:

a) Ebazpen honetako 1.2. artikuluan arautzen diren irakaskuntza-arloak ematea. Karrerako funtzionarioen parte-hartzeak lehentasuna izango du beti; nolanahi ere, deitutako prestakuntza-jardueretan dauden plazak ezin izan badira bete karrerako funtzionarioekin, orduan bitarteko funtzionarioek bete ahal izango dituzte.

b) Dagokion ikasturtean zerbitzu aktiboan egotea funtzionario moduan, edozein ikastetxe publikotan, hezkuntza-zerbitzutan edo Hezkuntza-administrazioaren postu teknikotan, berauek hezkuntza-zerbitzuekin zerikusia badute.

2. Bai ZEB_HPPEri eta bai ZEB_KEPPEri lotutako prestakuntza-jarduerak aurrez aurreko irakaskuntza eta online irakaskuntza konbinatuz gauzatuko dira. Prestakuntza-jarduerak modu egokian garatzeari begira, Hezkuntza Sailak bere prestakuntza-jarduera guztiak ostatatuko ditu [Moodlegunea, Lineako Ikastaroen Plataforma EAE/Hezkuntza Saila](#) izeneko plataforman, parte-hartzaileen parte-hartzea eta aprobetxamendua behar den bezala jasotzen dela bermatzeko.

3. Prestakuntza-programei lotutako prestakuntza-jarduerak arlo horretan gaitasun egiaztatua duen pertsonalak eman eta gainbegiratuko ditu: hezkuntza-ikuskariak, ikastetxeetako zuzendariak edo bestelako ikastetxeetako pertsona bakarreko gobernu-organoak, horiek guztiak ebaluazio positiboa izanik zuzendaritza-eginkizunetan; laguntza-zerbitzuetako pertsonala; unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak; Hezkuntza Saileko funtzionarioak; Herri Administrazioetako bestelako pertsonala, gai espezifikotan aditua; edo Administrazioakoak ez diren adituak. Bi Programak koordinatu eta gainbegiratzeaz Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren Esparrua arduratuko da.

4. Dagokion prestakuntza-programa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria jasotzeko, parte-hartzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Derrigorrezko prestakuntza-jarduerak gauzatu izana eta ebaluazio positiboarekin gainditu izana.
- Prestakuntza-ibilbideari dagozkion ikastorduak bete izana, pertsona bakoitzak aukeratu dituen hautazko jarduerak gauzatu eta ebaluazio positiboarekin gainditzearen bidez.



5. 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako prestakuntza-jardueren zerrenda irakasleen eskura egongo da webgune honetan: [ZuzendaritzaGunea](#). Bertan, prestakuntza-jarduera bakoitzak deskribapen-fitxa bat izango du, informazio hau jasoko duena (III. Eranskina: prestakuntza-jardueren deskribapen-fitxaren eredia):

- Prestakuntza-jardueraren izenburua, kodea, arduraduna, irakasleak/dinamizatzaileak, orduen osoko kopurua, plazak, jardueraren hasierako eta amaierako data, hizkuntza, ikastaroaren lekua (fisikoa eta birtuala) eta ordutegia.
- Ezarriko da ea prestakuntza-jarduera ZEB_HPPE programan eta/edo ZEB_KEPPE programan sartuta dagoen.
- Adieraziko da ea derrigorrezko edo hautazko jarduera bat da ZEB_HPPE eta/edo ZEB_KEPPE programaren barruan.
- Hartzaileak, eta prestakuntza-jardueran onartua izateko nahitaez bete behar diren betekizun espezifikoak.
- Programa zehatza: konpetentziak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-irizpideak.
- Prestakuntza-jarduera mota:
 - I: ikastaroa
 - M: mintegia
 - PK: praktika-komunitatea
 - TM: prestakuntza-topaketa monografikoak
 - NP: nazioartekotze-programak
 - E: prestakuntza-egonaldiak beste ikastetxe batzuetan
 - T: hezkuntza-arlokoak ez diren inguruneetan lidergoa duten pertsonen arteko topaketak.
- Ikastaroa emateko modalitatea:
 - P: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetan ematea
 - D: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetatik kanpo ematea
 - H: jarduera online ematea
 - HS: modalitate sinkronoa
 - HAS: modalitate asinkronoa
 - I: jarduera modu hibridoan ematea (aurrez aurre eta online)
- Jardueraren zereginak, jarraian zehazten den bezala:
 - G: txostena eta/edo memoria egitea
 - F: Ikastetxean praktika bat egitea

6. Eskabidea telematikoki egingo da, Hezkuntza Sailaren aplikaziora sartuz, irakasleen eskura dagoen [Hezigunea](#) atarian.



7. Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren Esparruak parte-hartzaileak aukeratuko ditu, Ebazpen honetan eta eskatutako prestakuntza-jardueraren deialdi bakoitzean ezarritako betekizunak oinarritzat hartuta. Eskatzaile bakoitzak bere eskabideen egoera ikusi ahal izango du [Hezigunea](#) atarian, hor agertuko baita zer egoeratan dauden eskatzaileak, eskatutako jarduera bakoitzari dagokionez:

- a) Onarpena: Prestakuntza-jardueran plaza duten eskatzaileak.
- b) Erreserba: prestakuntza-jardueran sartzeko betekizunak betetzen dituzten baina plazarik lortzen ez duten pertsonak, lehentasun maila berberaren barruan esleitutako azken plazaren puntuazioaren azpitik egoteagatik.
- c) Kanpo geratzea: deialdiaren betekizunak edo prestakuntza-jarduerara sartzeko betekizunak betetzen ez dituzten eskatzaileak. Kanpo geratzeko arrazioen kodeak honako hauek dira:

C: Ez da zerbitzu aktiboan dagoen pertsonala

K: Ez da betetzen prestakuntza-jarduerara sartzeko betekizun espezifikoren bat

L: Ikastaroa bertan behera geratu da

H: Eskatzaileak uko egin dio prestakuntza-jardueran parte hartzeari

8. Prestakuntza-jardueran parte hartzean, eskatzaileak konprometitzen dira onartuak izan diren jardueran programatutako fase eta zeregin guztiak betetzeko. Halaber, prestakuntza-jarduera bukatzen dutenean, jarduera horri buruzko ebaluazio-inkesta bete behar dute. Bestela, parte-hartzailea ez da gaitzat hartuko eta ez zaio emango prestakuntza-jardueran parte hartu izanaren ziurtagiria.

9. Horrez gain, onartutako pertsonak konpromiso eta ardura hauek hartzen dituzte euren gain: eskuratutako ezagutzak praxira eramatea, zuzendaritza-taldeko gainerako kideei helaraztea eta euren ikastetxean egunero gauzatzen duten lanean aplikatzea, hala dagokionean.

10. Onartutako pertsonak uko egiteagatik edo ez agertzeagatik libre geratzen diren plazak erreserba-zerrendako pertsonekin bateko dira. Pertsona horiei zerrenda horretan duten postuaren arabera hurrenkeran deituko zaie. Orokorrean, prestakuntza-jardueraren bigarren saioa eman ostean hutsik geratzen diren plazak ez dira beteko, baina salbuespenak egongo dira jarduerak iraupen luzea baldin bada, prestakuntza ez-presentziala bada edo salbuespen hori egitea ahalbidetzen duten beste zirkunstantzia batzuk sortzen badira.

11. Parte-hartzaileak gai direla kontsideratzeko, jardueraren orduen gutxienez % 80era joan beharko dute (haien modalitatea aurrez aurrekoa, mistoa, online edo sinkronoa denean), jardueraren zeregin guztiak bete beharko dituzte, proiektu, txosten edo oroitidazkia entregatu, eta balorazio-fitxa egin, horrela ezarrita baldin badago. Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duen pertsona gaitzat hartzen bada, hori Hezkuntza Sailaren irakasleen berrikuntza- eta prestakuntza-jardueren datu-basean erregistratuko da. Gaitzat hartutako irakasleek gaitasun hori egiaztatzen duen ziurtagiria ikusi eta inprimatu ahal izango dute [Hezigunea](#) atariko prestakuntzaren atalean. Gaitzat hartzen ez diren parte-hartzaileek ez dute ziurtagirik eskuratuko, onartuta egon ziren prestakuntza-jarduerari dagokionez.



5. Artikulua. Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_HPPE).

1.- Ikastetxe bateko zuzendaritzan aritzeko aukeratutako zuzendariak Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko programa espezifiko (ZEB_HPPE) gainditu beharko dute izendatuak izan baino lehen. Salbuespen gisa, aukeratutako pertsonak ZEB_HPPE programa bukatu ahal izango dute zuzendariak aukeratzeko merezimendu-lehiaketaren deialdia egiten den ikasturteko ekaina eta uztailean, baita euren agintaldiko lehenengo hiruhilekoan ere. Edonola ere, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza izango da luzapena baimenduko duena, kasu bakoitza aztertu eta gero.

2.- Ohiz kanpoko izaeraz izendatutako zuzendariak ere zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_HPPE) egin eta gainditu beharko dute euren izendapenaren lehenengo urtea amaitu baino lehen.

3.- Konpetentziak eskuratzeko edukiak 7 modulutan daude antolatuta, ebazpen honetako IV. Eranskinean jasota dagoen bezala. Programan egiten diren jarduerak modulu horietako edukiak erlazionatu ahal izango dituzte elkarren artean, modu globalizatuan landuz.

4.- Programak 120 orduko iraupena du: 80 ordu derrigorrezko prestakuntza-jardueri dagozkie eta 40 ordu hautazko jardueri. VI. Eranskinean, programa espezifiko honen prestakuntza-jarduerak jasotzen dira.

6. Artikulua. Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_KEPPE).

1. ZEB_KEPPE prestakuntza-programaren helburua da ikastetxeetako zuzendaritza-lana betetzen duten pertsonen etengabeko prestakuntza ematea, eta zuzendaritza-eginkizunaren eta lidergo pedagogikoaren kalitatea hobetzera dago zuzenduta. Prestakuntza horrek konpetentzia tekniko eta profesionalen eguneraketa bultzatuko du, ikastetxeko zuzendaritzaren, hezkuntza-kudeaketaren eta lidergoaren arloetan, eta xede nagusizat hartuko du ikasleen eskola-emaitzak eta hezkuntza-arrakasta hobetzearen alde egiten duten zuzendaritza-konpetentziak sustatzea.

2. Ikastetxe bateko zuzendaritza-eginkizuna betetzeko aukeratuak izan diren eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziei buruzko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_HPPE) gainditu duten zuzendariak zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko moduluak egin beharko dituzte, dagokion ziurtagiria jaso eta zortzi urteko epea igarotzen denean; horretarako, ZEB_KEPPE programa gainditu beharko dute. Programa hori gainditzea merezimendu gisa hartuko da kontuan aukeraketa-prozeduretan.

3.- Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko oinarritzotzat jotzen diren edukiak 6 modulutan daude antolatuta, eta ebazpen honen V. Eranskinean daude jasota. Programan egiten diren jarduerak modulu horietako edukiak erlazionatu ahal izango dituzte elkarren artean, modu globalizatuan landuz.

4.- Programak 60 orduko iraupena du: 45 ordu derrigorrezko prestakuntza-jardueri dagozkie eta 15 ordu hautazko jardueri. VII. Eranskinean, programa espezifiko honen prestakuntza-jarduerak jasotzen dira.

7. Artikulua. Prestakuntza-programak gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria: ZEB-HPPE eta ZEB_KEPPE prestakuntza-programak

1. Dagokion programa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria eskuratzeko, parte-hartzaileek programa bakoitzaren derrigorrezko prestakuntza-jarduerak egin eta gainditu beharko dituzte, eta baita programa espezifiko bakoitzerako ezarritako ordu kopurua osatzeko beharrezkoak diren hautazko prestakuntza-jarduerak ere. Bi programa espezifikoetarako, ezinbestekoa izango da zuzendaritza-proiektu bat prestatzearekin lotutako prestakuntza-jarduera gainditzea.



2. Zereginak eta zuzendaritza-proiektua osatzen duten dokumentu guztiek jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute. Dokumentu horietako zati batean edo dokumentu osoan plagiorik detektatzen bada, ez da eskuratuko programaren ziurtagiria.

3. Dagokion prestakuntza-programa gainditu eta gero, Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak programa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria emango du.

Ziurtagiriaren aurrealdean, parte-hartzailearen izena eta abizenak, beraren nortasun agiri nazionala eta ziurtapenaren data agertuko dira. Atzealdean, berriz, prestakuntza-programa espezifikoaren zein den agertuko da, eta programa espezifiko bakoitza eta banakako prestakuntza-ibilbidea osatzen dituzten prestakuntza-jarduerak zehaztuko dira.

Egiaztapen-ziurtagiri hori ofizioz egingo da zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketan aukeratutako pertsonen kasuan. Gainerako kasuetan, ziurtagiria jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak idatziz eskatu beharko diote Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari.

4. Zuzendariak aukeratzeko merezimendu-lehiaketan aukeratutako pertsonen kasuan, programa espezifiko bakoitzaren ziurtapenerako eskatzen den prestakuntzak hautagaiaren prestakuntza-kontuan egon beharko du erregistratuta merezimendu-lehiaketa garatu den ikasturteko maiatzaren 31 baino lehen.

Ofiziozko egiaztapen-ziurtagiria ekainaren 1etik ekainaren 15era bitartean emango da, artikuluko honetako 3. puntuan jasotzen den bezala. Maiatzaren 31ren ostean egindako prestakuntza-jarduerak hurrengo ikasturteko ziurtapenerako konputatuko dira.

Ebazpen honetako 5. artikuluko 1. atalean jasotzen den bezala, salbuespenezko kasuetan, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak luzapen bat baimendu ahal izango du, aukeratutako zuzendariaren agintaldiaren lehenengo urtearen lehenengo hiruhilekora arte, gehienez, ZEB_HPPE programaren ziurtapenerako beharrezkoa den prestakuntza-ibilbidea amaitu dezan. Horrelako luzapenak interesatutako pertsonari jakinaraziko zaizkio merezimendu-lehiaketaren deialdia egiten den ikasturteko ekainaren lehenengo astean.

5. Programa espezifiko bat egiaztatzeko betekizunak betetzen dituzten baina merezimendu-lehiaketan aukeratuak izan ez diren edo bertara aurkeztu ez diren pertsonak, berriz, dagokien egiaztatze-ziurtagiria eskatu beharko diote, idatziz, Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari, dagokion ikasturteko ekainaren 1etik ekainaren 15era bitartean.

Eskabideak aztertu eta gero, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak egiaztatze-ziurtagiriak emango ditu dagokion ikasturteko ekainaren 30a baino lehen, artikuluko honetako 3. puntuan jasotzen den bezala. Maiatzaren 31ren ostean egindako prestakuntza-jarduerak hurrengo ikasturteko ziurtapenerako konputatuko dira.

6. [Zuzendaritza-kompetentzien hasierako prestakuntza eta eguneratze-programak arautzen dituen Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren 2021eko ekainaren 18ko Ebazpenak](#) araututako prestakuntzan gaitzat hartu ziren pertsonak badute zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren (ZEB_HPPE) edo, hala badagokio, Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko programa espezifikoaren (ZEB_KEPPE) gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.



8. Artikulua. ZEB_HPPE Programaren jarduera jakin batzuk ez egitea eta ez ebaluatzea ahalbidetzen duten salbuespenak.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 134.1.c) artikulua zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruz ezartzen duen ikastaroaren ezaugarriak garatzen dituen urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarra betez, ikastetxeetako zuzendaritza eta kudeaketari buruzko Master ofizial bat edo graduondoko titulu ofizial bat lortu dutenek ez dute egin behar Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (ZEB_HPPE), salbu eta Zuzendaritza-proiektuari dagokion prestakuntza-jarduera.

2. Ikastetxe publikoen zuzendaritzan aritzeko egiaztapenak edo gaikuntzak 2013ko urtarrilaren 19tik 2021eko urtarrilaren 19ra bitartean eskuratu zituzten izangaiek ez dute egin behar zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (ZEB_HPPE), salbu eta Zuzendaritza-proiektuari dagokion prestakuntza-jarduera. VIII. Eranskinean zehazten da zer ikastarok gaitzen duten ikastetxe publikoen zuzendaritzarako, Hezkuntza Sailak lehen aipatutako daten artean emandako ikastaroen artean.

3. Zuzendaritza-eginkizunean aritu diren eta euren lanaren gutxienez ebaluazio positibo bat egiaztatzen duten hautagaiek ez dute egin behar zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (ZEB_HPPE), salbu eta Zuzendaritza-proiektuari dagokion prestakuntza-jarduera

4. Hautagaiek eskatu diezaiokete euren Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzako Hezkuntza Berrikuntzaren Arduradunari ZEB_HPPE Prestakuntza-programaren jarduera batzuk egitetik eta ebaluatzetik salbuetsita geratzea, betiere artikulua honetako 1., 2. eta/edo 3. ataletan jasotako egoeraren batean badaude. Eskabidea egingo da zuzendariak aukeratzeko merezimendu-lehiaketan parte-hartzeko eskabidea egiten denean, hots, aldi berean. Horretarako, ebazpen honetako IX. Eranskinean jasotzen den galdetegia beteko da.

5. Prestakuntza-jardueren irakasleak ikastetxeetako zuzendariak direnean, edo bestelako pertsona bakarreko gobernu-organismoak direnean, horiek guztiek ebaluazio positiboa izanda euren zuzendaritza-eginkizuna betetzean egindako lanagatik, salbuetsita egongo dira prestakuntza-jarduera horiek egiaztatzetik.

9. Artikulua - Hasierako eta eguneraketarako prestakuntza-programa espezifikoak zuzendari ez diren pertsona bakarreko gobernu-organismoentzat, zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasten direnak edo jadanik betetzen ari direnak.

1. Hezkuntza Sailak prestakuntza-programa espezifikoak eskainiko ditu zuzendari ez diren eta zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasten diren pertsona bakarreko gobernu-organismoentzat. Modu osagarrian, Hezkuntza Sailak eguneraketarako prestakuntza-jardueren eskaintza espezifikoa bat ezarriko du zuzendaritza-taldeko gainerako kideentzat, horien bidez trebakuntza emateko euren eginkizunak baldintza onenetan bete ditzaten.

2. Hasierako eta eguneraketarako programa espezifikoaren ezaugarri orokorrak ebazpen honetako 3. artikulua 1., 2., 4. eta 8. ataletan agertzen direnak dira.

3. Hasierako eta eguneraketarako programa espezifikoaren betekizun orokorrak Ebazpen honetako 4. artikuluan agertzen direnak dira (artikulua 4. atala kanpo utzita).

4. Programa hauen eduki espezifikoak ebazpen honetako X. Eranskinean daude jasota. Programetan egiten diren jarduerak eduki espezifikoa horiek erlazionatu ahal izango dituzte euren artean, eta baita ebazpen honetako IV. eta V. eranskinetan aipatutako batzuk ere, modu globalizatuan landuz.



5. XI. Eranskinean, programa espezifiko hauen prestakuntza-jarduerak jasotzen dira.

10. Artikulua – Zuzendaritza-taldeentzako laguntza eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak.

1. Zuzendaritza-taldeek zuzendaritza-eginkizuna betetzeko beharrezkoa den laguntza izango dute. XII. Eranskinean agertzen da Hezkuntza Sailaren zerbitzuetatik ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei lagunduko dieten pertsonen zerrenda, bakoitzaren laguntza-eremua zehaztuz.

2. [ZuzendaritzaGunea](#) izango da leku nagusia zuzendaritza-taldeentzat interesekoa den informazio guztia jasotzeko: prestakuntza, laguntza, ikastetxearen kudeaketarako tresnak (pedagogikoa, antolakuntza eta funtzionamendukoa, eta kudeaketakoa), lege-errepositorioa, intereseko albisteak, etab... Atari berean, parte-hartzerako foro batzuk jarriko dira, eta baita [Hezigunea](#) atarirako esteka (prestakuntza-jardueretarako izena emateko) eta [Moodlegunea, Lineako ikastaroen plataforma EAE/Hezkuntza Saila](#) deritzan plataformarako esteka ere.

3. Zuzendaritza-taldeen koordinazioa eta parte-hartzea Eraginguneetan garatuko diren mintegien bidez egingo da bereziki, VI. eta VII. Eranskinean zuzendarientzat jasotzen den bezala.

4. Ikastetxe bateko zuzendaritzan gutxienez ikasturte beteko aurretiko esperientziarik ez duten zuzendariak beste zuzendari baten tutoretzaren bidez osatuko dute euren prestakuntza; tutore horrek gutxienez agintaldi bateko esperientzia eta ebaluazio positiboa izan behar ditu zuzendaritza-eginkizunaren lanetan.

11. Artikulua. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntzaren plangintza eta ebaluazioa.

1. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako Hasierako eta Etengabeko Prestakuntzaren programa da euskal ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen prestakuntzaren plangintza eta koordinazioaren oinarritzko tresna. Beraren helburua da erantzuna ematea bai zuzendaritza-taldeen prestakuntza-behar eta –eskariei eta bai ikastetxeek berek eta hezkuntza-sistemak berak dituztenei, prestakuntza-eskaintza koherente eta egituratu baten bidez. Hor definitzen dira epe ertain eta luzerako helburuak, prestakuntza-ekintzaren lehentasunezko ildoak eta ibilbideak, proposatutako helburuak lortzeko egokienak diren prestakuntza-estrategiak, eta programa horren jarraipena, eguneraketa eta ebaluazioa egiteko prozedurak.

2. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako Hasierako eta Etengabeko Prestakuntza-programa lantzeko eta garatzeko eskumena Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarena da.

3. Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogikoko eta Hezkuntza-eraldaketaren Esparruak, ZEB_HPPE eta ZEB-KEPPE programa espezifikoaren arduraduna den aldetik, kontuan hartu beharko ditu prestakuntza-jardueren ebaluazioetatik ateratako ondorioak eta prestakuntzaren hartzaile diren irakasleen autoebaluazio eta ebaluazioaren emaitzak, eskura dituen baliabideak eta ikastetxeen egoerak ere kontuan hartuta. Ebaluazioa prestakuntza-prozesuei eta lortutako emaitzei buruz egingo da, bai prestakuntza-jardueren antolaketa eta kudeaketari dagokionez eta bai zuzendaritza-eginkizunaren praxian eta ikastetxeen kalitatearen hobekuntzan duen inpaktuari dagokionez, eta, hortaz, ikasleen emaitza akademikoei ere dagokienez.

4. Edonola ere, egiten diren ebaluazioek honako helburu hauek izango dituzte:

- a) Baloratzea zer eragin duen prestakuntzak hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eta



ikastetxeetako ikasleen errendimendu akademikoetan.

b) Eremu bakoitzetik gauzatzen diren prestakuntza-prozesuak baloratzea.

c) Zuzendaritza-taldeen jarduna baloratzea, Hezkuntza-ikuskaritzarekin koordinatuta.

d) Zuzendaritza-taldeen inplikazio eta gogobetetasun maila detektatzea, gauzatu dituzten prestakuntza-prozesuei dagokienez; prozesu horiek garatzean sortzen diren arazoak identifikatzea, eta lorpena indartzea eta arazoak konpontzea ahalbidetzen duen informazioa ekartzea.

e) Zuzendaritza-taldeen beharrak detektatzea, zuzendaritza-eginkizunaren eta ikastetxeen hobekuntzan eragina izan dezaketen ekimenak abiatzen laguntzeko.

5. Hezkuntza Sailak arautuko ditu prestakuntza ebaluatzeko prozesuak, eta mekanismoak sortu ahal izango ditu zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntzan inplikaturako eragileen barne- eta kanpo-ebaluaziorako. Orobat, horien ebaluazioen emaitzei buruz egiten dituen txostenak hedatuko ditu aldizka, egokitzat jotzen dituen bideetatik.

12. Artikulua. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntzaren komunikazio-estrategia.

1. Zuzendaritza-eginkizuna betetzera zuzendutako Hasierako eta Etengabeko Prestakuntza Programa diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea Hezkuntza Sailaren ardura da, eta horretarako bere eragile guztien eta zuzendaritza-taldeen konpromisoa behar du. Prestakuntza-programa horren arrakasta horien guztien inplikazio mailaren baldintzapean dago; horregatik, funtsezkoa da bertan jasotzen diren helburu eta jarduerari buruzko informazio egokia izatea, eta baita haren garapenari buruzkoa ere. Beharrezkoa da, halaber, informazioa trukatzeko kanalak izatea, horien berri emateko eta dauden asmoak, erronkak eta aurrerapenak ezagutzeko.

Alde horretatik, Programa honen komunikazio-estrategiak hiru une garrantzitsu izango ditu bere gauzapenean, eta une horietarako zenbait jarduera aurreikusten dira komunikazio-estrategiaren baitan:

- Ebazpen honen onarpen-fasean egingo den komunikazioa. Onarpen-fasean gauzatu diren jarduerak:
 - o Ebazpena zuzendaritza-taldeei aurkeztea.
 - o Ebazpena argitaratzea, bai Sailaren webgunean eta bai ZuzendaritzaGunea atarian.
 - o Ebazpena ikastetxeetako klaustroetan zabaltzea, zuzendaritza-taldeek gidatuta.
- Inplementazio-fasean egingo den komunikazioa. Jarduerak:
 - o Ikasturtean zehar eskaintzen diren prestakuntza-jardueren informatzea, modu egokian eta beharrezkoa den maiztasunarekin, prestakuntza-eskaintza osatzeko eta aberasteko xedez.
 - o Ezarpenaren emaitza esanguratsuenek aldizka informatzea.
- Amaierako fasea, programaren inplementazio maila eta beraren inpaktua jakinarazteko:



- o Lortutako emaitzei buruzko txosten bat prestatzea eta hedatzea.

13. Artikulua. – Irakasleen parte-hartzea prestakuntza-programa espezifikoetan sustatzeko eta errazteko neurriak.

1. Ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen parte-hartzea sustatu eta erraztuko dute, eskainitako prestakuntza-jarduerari dagokienez. Horretarako, jarduera horien deialdia jakinaraziko dute, Ebazpen honetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, beharrezkoak diren antolakuntza-neurriak abiatuko dituzte, ikastetxean eskuragarri dauden baliabideez baliatuz, irakasleek prestakuntza-jardueretara joateagatik horren eraginpean egon daitezkeen ikasleei hezkuntza-arreta egokia bermatzeko.

14. Artikula – Datuen babesa, oinarrizko informazioa.

1. Ebazpen honetan aipatzen diren prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan jasotako datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko eskumena duen Zuzendaritzak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren “arduradun” gisa. Datu pertsonalen tratamendu horren helburua izango da ebazpen hau kudeatzea eta bideratzea. Helburu hori horien interes publikoan oinarritzen da, eta horietan parte hartzeko eskabidean ere bai.

2. Interesatutako pertsonak datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien eramangarritasunerako eskubideak erabili ahal izango dituzte, baita datuen tratamendua mugatzeko edo beraren aurka agertzeko eskubideak ere; horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali behar dute Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzara (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz).

3. Deialdi honetara aurkezten diren pertsonak baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. ZuzendaritzaGunea ataria gaitzen ez den bitartean, prestakuntza-eskaintza Hezkuntza Sailaren webgunearen bidez jakinaraziko da, Hezkuntza Berriztatzeko atalaren barruan: Hezkuntza Saila>>Hezkuntza Berriztatzea>>Jarduera-eremuak>>Zuzendaritza: prestakuntza (<https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/hezkuntza-berriztatzea/>)

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

Amaia Agirre Pinedo

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria



ERANSKINAK:

- I. Eranskina: Irakasleek garatu behar dituzten kompetentziak, Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren bidez (ZEB_HPPE) eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoaren bidez (ZEB_KEPPE)
- II. Eranskina: Prestakuntza-modalitateen ezaugarriak.
- III. Eranskina: Prestakuntza-jardueren fitxa deskribatzailearen eredua.
- IV. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren edukiak (ZEB_HPPE).
- V. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko programa espezifikoaren edukiak (ZEB_KEPPE).
- VI. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko programa espezifikoaren (ZEB_HPPE) prestakuntza-jarduerak.
- VII. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoaren (ZEB_KEPPE) prestakuntza-jarduerak, zuzendari zuzenduta.
- VIII. Eranskina: 2013ko urtarrilaren 19tik urtarrilaren 19ra bitartean Hezkuntza Sailak emandako ikastaroak (zerrenda), ikastetxe publikoen zuzendaritzarako gaitasuna ematen dutenak.
- IX. Eranskina: ZEB_HPPE Programaren jardura jakin batzuk ez egitea eta ez ebaluatzea ahalbidetzen duen salbuespena eskatzeko eredua.
- X. Eranskina: Zuzendari ez diren pertsona bakarrek gobernu-organoei zuzendutako prestakuntzaren eduki espezifikoak.
- XI. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren (ZEB_HPPE) eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko programa espezifikoaren (ZEB_KEPPE) prestakuntza-jarduerak, zuzendari ez diren pertsona bakarrek gobernu-organoei zuzenduta.
- XII. Eranskina: Zuzendaritza-taldeentzako laguntza eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak.



I. Eranskina

Irakasleek garatu behar dituzten konpetentziak, Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren bidez (ZEB_HPPE) eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoaren bidez (ZEB_KEPPE)

KONPETENTZIA KOGNITIBOAK (JAKINTZA – EZAGUTZA TEORIKOAK)
1. Ikastetxe publikoei aplikatzekoa den arau-esparrua.
2. Dokumentu instituzionalak.
3. Kudeaketa administratibo eta ekonomikorako aplikazioak, Hezkuntza aplikazioak barne.
4. Zuzendaritza-taldearen eginkizunak eta ardurak.
5. Curriculuma.
6. Pedagogia aktiboak.
KONPETENTZIA HORIEN LORPENERAKO NEURTU BEHAR DIREN ELEMENTUAK
A- Ikastetxeko baliabideak modu ordenatu, garden eta zorrotzean kudeatzeko gaitasuna.
B- Eskura dauden baliabide eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak egiteko gaitasuna.
C- Ikastetxeko irakasle eta irakasle ez den profesional bakoitzari dagozkion eginkizunak argi eta garbi komunikatzeko eta betetzen direla bermatzeko gaitasuna.
D- Hezkuntza Sailarekiko konpromisoa hezkuntza-sistemaren hobekuntza sustatzeko
E- Epe ertain edo luzera ager daitezkeen aukerak identifikatzeko gaitasuna, ikastetxea hezkuntza-politiken helburu eta lehentasunetara bideratzeko ekintzak inplementatu eta berregokitzeko.



KONPETENTZIA TEKNIKOAK (EGITEN JAKITEA – TREBETASUNAK)

1. Ikastetxearen egoera erreala, kultura (barneko elementuak) eta ingurunea (kanpoko elementuak) aztertzea.
2. Plangintza estrategikoa gidatzea, garatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea.
3. Eraldaketa eta berrikuntzarako antolaketa bat definitzea eta ezartzea. Lidergo banatua.
4. Ikastetxeko giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzea, kudeatzea eta administratzea, taldekako lana eta sareko lana sustatuz.
5. Irakasleen etengabeko prestakuntza sustatzea eta ikaskuntza sortzaile, eraldatzaile eta berritzaileen alde egitea.
6. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen kalitatea eta ebaluazio-metodoak gainbegiratzea, ingurune inklusibo, ekitatibo eta sozialki bidezko batean aplikatzen direla egiaztatuz.
7. Erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea, sistema-ikuspegitik.
8. Bizikidetzaren positiboa indartzen duten proposamenak bultzatzea.
9. Elkarrekin ikasten duen komunitateko kideen garapen pertsonal, sozial eta kulturala sustatzea.
10. Komunikazio-tresna eta -bideak berriztatzea eta aberastea, bai barnekoak eta bai kanpokoak.
11. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien parte-hartze aktibo eta asertiboa bultzatzea, ikasle, irakasle eta familiekin komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko.
12. Beste ikastetxe batzuekin, gizarte- eta/edo kirol-erakundeekin eta administrazioarekin kolaboratzea.

KONPETENTZIA HORIEN LORPENERAKO NEURTU BEHAR DIREN ELEMENTUAK

- A- Ikastetxearen diagnosi ona egiteko gaitasuna, hezkuntza-proiektuaren garapenean eta aplikazioan, esparru pedagogikoan lortu beharreko helburuetan zehaztuta, hezkuntza-emaitzak hobetzearekin lotuta
- B- Ikastetxea nora bideratu behar den ikusteko gaitasuna
- C- Ikastetxeko prestakuntza-plan bat ezartzeko gaitasuna, ikastetxearen hezkuntza-proiektua abian jartzea sustatzeko.
- D- Irakasleek behatzeko, ebaluatzeko eta aholku emateko gaitasuna, beren kompetentziak hobetzeko, metodo berriak aztertzeko eta gelako praktika onak gehitzeko.
- E- Eztabaida eta gogoeta pedagogikoa bultzatzeko gaitasuna, irakasleen konpromiso maila ona lortzeko ikasleen apendizaiari dagokionez.
- F- Talde-lana sustatzeko gaitasuna, irakasle-taldearen praktika erreflexibora, koirakaskuntzara eta berdinen arteko ikaskuntza sustatzera bideratutako ikastetxearen antolaketaren esparruan.
- G- Lidergo banatua gauzatzeko gaitasuna, funtzioak eta erantzukizunak eskuordetuz, motibazioa eta garapen profesionala harremanen giro aberasgarri eta eraikitzailean sostengatzeko.



H- Parte-hartzea bermatuko duten eta langile guztiek, irakasleek zein irakasle ez direnek, talde-lanean parte har dezaten sustatuko duten antolaketa-egiturak abian jartzeko gaitasuna.
I- Ikastetxeko bizikidetzako zailtasunak edo gatazkak sortzen dituzten egoerak, horien izaera, kausak eta elementuak argi eta garbi identifikatzeko gaitasuna.
J- Erantzun sortzaile eta eraginkorrak emateko gaitasuna, testuinguru bakoitzera egokitutako estrategiak planteatzeko gaitasuna, bereziki gatazkak konpontzeari dagokionez.
K- Familiek hezkuntza-arrakastarekin duten inplikazioa eta konpromisoa bultzatuko duten partaidetza-prozesuak eta -egiturak bultzatzeko gaitasuna.
L- Inguruko beste eragile batzuekin aliantzak sortzeko eta loturak sendotzeko gaitasuna.



PERTSONEN ARTEKO ETA PERTSONA BARNEKO KONPETENTZIAK (IZATEN JAKITEA)

1. Eskola-komunitatearen aldeko konpromisoa islatzen duen jarrera garbia erakustea.
2. 2Modu eredugarrian jardutea, printzipio etikoen arabera.
3. Identitate digital pertsonala eta ikastetxearena garatzea, arduraz, segurtasunez eta jasangarritasunez.
4. Ikastetxea malgutasunetik eta etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromisotik gidatzea eta jarrera irekia eta harkorra erakustea hobekuntzarako proposamen berrien aurrean.
5. Pertsuasioan eta motibazioan oinarritutako zuzendaritza-estrategien garapenagatik interesatzea.
6. Erantzun emozionala estres-egoeren aurrean autorregulatzea.

KONPETENTZIA HORIEN LORPENERAKO NEURTU BEHAR DIREN ELEMENTUAK

- A- Ikuspegi berriak onartzeko eta premia aldakorrei erantzuteko prestasuna, lehentasunak birdefinituz eta hezkuntza-komunitateak eta gizarteak planteatzen dituzten erronken arabera eboluzionatuz.
- B- Premia aldakorrei erantzuteko gaitasuna, lehentasunak birdefinituz eta helburuak egokituz.
- C- Taldeak hezkuntza-komunitatearekin duen konbentzimenduaren, enpatiaren eta konpromisoaren gaitasunak eta trebetasunak
- D- Ikastetxeko giza taldeak motibatze gaitasuna, hurbileneko ingurunearekin, hezkuntza-eragile guztiekin eta sareekin duten harremanean..
- E- Komunitatearekin eta komunitatearentzat ikuspegi ireki eta parte-hartzailearekin lan egiteko prestasuna, ikastetxearen ikuspegi sistemikoarekin, testuinguruari eta uneari dagokionez
- F- Komunikazioan asertibitatea eta zehaztasuna erakustea, informazioa modu argi, zehatz eta sinesgarrian adieraziz, erregistroak komunikazio-ingurune eta -kanaletara egokituz eta komunikatutakoa ulertzen dela ziurtatuz.
- G- Ikastetxean lan egiten duten edo harekin lan egiten duten komunitateko eragileen ekintzak identifikatzeko, bideratzeko eta ikusarazteko gaitasuna
- H- Tentsio- eta krisi-egoerei aurre egiteko eta kudeatzeko gaitasuna, harreman izaerako inplikazioak daudenean, gatazkaren ikuspegi eraikitzailearekin..
- I- Erakundean konfiantza sortzeko gaitasuna, erreferente gisa.
- J- Ikastetxeak ikasgelan, espazio komunetan edo komunitatearen eskura dituen tresna digitalak ikuspegi pedagogikoz identifikatzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko gaitasuna
- K- Baliabide digitalen erabilera arduratsua bultzatzeko gaitasuna, bai pertsoneri dagokienez, bai ingurumenari dagokionez.



II. Eranskina: Prestakuntza-jarduera moten ezaugarriak

IKASTAROAK.

1. Ikastaroen programak adituen ekarpenetan oinarrituta garatu dira gehienbat, eta gai hauekin lotutako edukiak jorratzen dituzte: zuzendaritza-taldeei esleitutako funtzioen garapena, plangintza estrategikoa, eskola-antolaketa, baliabideen eta aplikazioen kudeaketa, lidergo pedagogikoa, gizarte-trebetasunak eta autorregulazio pertsonala.
2. Ikastaroaren diseinuaren arduraduna Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren Esparrua da, ebazpen honetako I. Eranskinean jasotako eskumen-esparrua kontuan hartuta. Ikastaroa zuzentzeko eta koordinatzeko zeregina profesional esperimintatu eta kualifikatu bati edo batzuei dagokie, eta zeregin horretan jardueraren diseinua sartzen da, 3. artikuluan deskribatutako alderdien arabera.
3. Prestakuntza-ikastaro batean izena eman duten pertsonak uko egin ahal izango diote parte hartzeari matrikula onartzen denetik ikastaroa hasi baino 48 ordu lehenagora arte.
4. Aurrez aurreko jardueretan eta modalitate sinkronoko online ikastaroetan, derrigorrezkoa izango da ikastarora bertaratzea. Ziurtagiria eskuratzeko, hutsegiteek -horien kausa zeinahi delarik ere- ezin izango dute aurrez aurreko fasearen osoko iraupenaren ehuneko 20tik gorakoak izan. Bertaratze hori saioen akten bidez justifikatuko da, hor sartuko baitira saioei dagokien sinadura-orriak; bestela, antzeko sistemaren bat erabil liteke. Akta horiek ikastaroa koordinatzen duen zuzendariak edo pertsonak ere sinatuko ditu.
5. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

MINTEGIAK.

1. Mintegia berdinaren arteko prestakuntza-jarduera bat da, zeinean zuzendari batzuek edo ikastetxeetako pertsona bakarreko beste gobernu-organo batzuk, aldizka eta ikasturtean zehar, zuzendaritza-eginkizunaren praktikarekin lotutako gai batzuetan sakontzen duten.
2. Mintegiak ikastetxearen tipologian eta/edo bere kokapenean oinarrituta antolatuko dira:
3. Ohiko lan-prozedurak esperientzien trukea, barne-eztabaida eta mintegiko parte-hartzaileek berek egiten dituzten ekarpenak dira; horrez gain, baina, taldetik kanpoko adituek ere esku hartu dezakete.
4. Mintegiak lidergo pedagogiko eta hezkuntza-eraldaketaren atalak baloratuko ditu, mintegiaren koordinatzaileak egiten duen txostena eta saioen aktak oinarritzat hartuta, eta baita dagokion deialdian ezartzen diren -hala dagokionean- alderdiak ere kontsideratuta.
5. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

PRAKTIKA-KOMUNITATEAK.

1. Prestakuntza-jarduera mota hau berdinaren arteko prestakuntzara zuzenduta dago, eta baita ikastetxeen zuzendaritza-taldeen eguneroko lanarekin zerikusia duten hezkuntza-lidergoko esperientziak elkarri azaltzera ere.
2. Praktika-komunitate horien ezaugarriak honako hauek dira:



- Zenbait ikastetxetako zuzendariak edo/eta ikastetxeetako pertsona bakarreko beste gobernu-organo batzuk bilduko dituzten lan-taldeak eratuko dira (lehentasuna emango zaie zuzendaritza-proiektua eta karguan esperientzia dituzten zuzendaritza-taldeei), aldizka eta ikasturtean zehar hezkuntzaren arloko eguneratze- eta –berriztatze-lanak egin ditzaten, lidergo pedagogikoaren eta eskola-antolaketarekin eta horien esperimentazioarekin lotutako proposamen praktikoak lantzearen bidez.
 - Praktika-komunitate horiek koordinatzeko zereginak honako hauek garatu ditzakete:
 - Lidergo pedagogiko eta hezkuntza-eraldaketaren ataleko aholkulari batek.
 - Zuzendaritza-eginkizunean esperientzia duen taldekide batek.
 - Talde horiek eratu daitezke aurretik egindako prestakuntza-jarduera bati (monografikoa, ikastaroa...) jarraipena eta eraginkortasuna emateko.
- Hala dagokionean, ikaskuntza partekatuko ekintzak landuko dira, zuzendaritza-esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko espazio irekien bitartez, ikastetxeek berek duten testuinguruan kokatuta. Behaketan, trukean eta zuzendaritza-eginkizunaren jardunari buruzko prestakuntzan oinarritutako prestakuntza-ekintza horien bitartez, zuzendaritza-konpetentzien garapena sustatu nahi da eta hezkuntza-berriztapen eta –eraldaketarako proiektuak garatzeko beharrezkoak diren laguntzako prestakuntza-tresnak eskaini.
- 3. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

PRESTAKUNTZA-TOPAKETA MONOGRAFIKOAK

1. Ohiz kanpoko izaera duen prestakuntza-jarduera mota bat da, helburutzat duena gai monografiko bati buruzko edukiak hedatzea, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzea, edo gai zientifikoak, didaktikoak eta eskola-lidergoari buruzkoak eztabaidatzea. Beraren egiturak barne hartu ahal izango ditu adituen hitzaldiak, esperientzien aurkezpenak, komunikazioak, tailerrak, mahai-inguruak eta materialen erakusketak. Modalitate honi beste prestakuntza-ekintza batzuk gehituko zaizkio, hala nola jardunaldiak, batzarrak, sinposioak edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein.
2. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

NAZIOARTEKOTZE-PROGRAMAK.

1. Prestakuntza-jarduera mota honen helburua da beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemak eta zuzendaritza-organoak ezagutzea, Europako beste administrazio eta erakunde batzuen lankidetzarekin, bertan egonaldiak egitearen bidez.
2. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

IKASTETXEETAN PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK EGITEA ETA MENTORETZA.

1. Ikastetxeetan prestakuntza-egonaldiak egitea prestakuntza-modalitate bat da, beste ikastetxe batzuetan eta zuzendaritza-taldeen artean trebatzeko aukera eskaintzen diena zuzendaritza-karguak dituzten pertsoneri. Berdinen arteko prestakuntza praktiko eta bizia da, zuzendaritza-eginkizunari ikuspegi pedagogiko inklusibo batetik heltzeko moduari buruzkoa. Beraren xedea izango da, zuzendaritza-



eginkizuna garatzeko gaitasuna hobetzeaz gain, eguneroko praktika hobetzea, zuzendaritza-taldeak ahalduntzea eta ezagutza transmititzea.

2. Prestakuntza-egonaldi hauek Hezkuntza Sailak deitu beharko ditu, Ebazpen honetan eta dagozkien deialdietan araututakoaren arabera. Parte-hartzaileei aitortuko zaizkien prestakuntza-orduen kopurua ebazpen horren bidez zehaztuko da, deialdia egin aurretik, irakasleen etengabeko prestakuntzaz arduratzen den Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren Atalak proposatuta.

3. Ikastetxetako prestakuntza-egonaldiak Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaz arduratzen den organo edo zerbitzuak baloratuko ditu, dagokien deialdian ezartzen diren irizpideekin bat etorritik. Prestakuntza-egonaldi batengatik gehienez aitortu ahal izango diren orduak 100 izango dira. Prestakuntza-egonaldi horiek zuzendaritza-eginkizunaren ebaluazioaren baitan sar daitezke, prestakuntza-ebaluazio baten esparruan.

4. Prestakuntza-jarduera horien barruan sartzen da Zuzendaritza hasiberrirako mentoretza-prestakuntza. Alde horretatik, euren agintaldiaren lehen eta bigarren urtean aukeratu eta izendatu diren zuzendariak, eta baita ohiz kanpoko izaeraz izendatu direnek ere, zuzendaritza hasiberrirako jardueretan parte hartu ahal izango dituzte; jarduera horien antolatzailea Berritzegune Nagusiko Lidergo eta hezkuntza-eraldaketaren atalak antolatuko ditu, Hezkuntza-ikuskaritzaren lankidetzarekin. Horretarako, esperientzia aitortua duten eta euren eginkizunak betetzearen inguruko balorazio positiboa jaso duten zuzendariengana joko da, mentore gisa jardun dezaten, araudi bidez ezartzen den prozeduraren arabera. Prestakuntza hori zuzendaritza-eginkizunaren ebaluazioaren baitan sar daiteke.

5. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.

HEZKUNTZA-ARLOKOAK EZ DIREN INGURUNEETAN LIDERGOA DUTEN PERTSONEN ARTEKO TOPAKETAK.

1. Prestakuntza-jarduera mota honen helburu nagusia da sustatzea, hezkuntza-arlokoak ez diren beste erakunde batzuekin batera, horrelako erakundeetako zuzendaritza-organoen funtzionamendu-egituren eta jardunaren inguruko ezagutza, erakunde horietara egindako bisita edo egonaldien bitartez.

2. Prestakuntza-jarduera mota hau Ebazpen honetan jasotakoaren arabera arautuko da, eta baita dagokien deialdietan araututakoaren arabera ere.



III. Eranskina: Prestakuntza-jardueren fitxa deskribatzailearen eredua

<p>Prestakuntza-jarduera</p> <p>Izenburua:</p> <p>Kodea:</p>		
Tipologia ¹ :	Irakasteko modalitatea ² :	Jardueraren zereginak ³ :
<p>Prestakuntza-jarduera hori honako programa hauetako bati dagokio:</p> <p>Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_HPPE) (Derrigorrezkoa/Hautazkoa)</p> <p>Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifiko (ZEB_KEPPE) (Derrigorrezkoa/Hautazkoa)</p>		
Arduraduna:	Irakasleak edota dinamizatzaileak	
Ordu kopurua:	Lekua (fisikoa edota birtuala):	
Hasiera-data:	Ordutegia:	
Amaiera-data:		
Hartzaileak (bete beharreko baldintzak):		
Plaza kopurua:		
Plazak esleitzeko irizpideak:		
Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak		
Edukiak		
Metodologia		

¹ I: ikastaroa; M: mintegia; PK: praktika-komunitateak; TM: prestakuntza-topaketa monografikoa; NP: nazioartekotze-programa; E: prestakuntza-egonaldia beste ikastetxe batzuetan; T: hezkuntza-arlokoak ez diren inguruneetan lidergoia duten pertsonen arteko topaketa.

² P: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetan ematea; D: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetatik kanpo ematea; H: on line jarduera ematea; HS: modalitate sinkronoa; HAS: modalitate asinkronoa; I: jarduera modu hibridoan ematea (aurrez aurre eta on line)

³ G. txostena eta/edo memoria egitea; F: Ikastetxean praktika bat egitea



Egitaraua:
Prestakuntza-jardueraren ebaluazioa:
Izena emateko epea eta esteka:



IV. Eranskina

Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoaren edukiak (ZEB HPPE).

Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko ariketan sartzeko oinarritzotzat jotzen diren edukiak 7 modulutan antolatuta daude. Ikasturtean zehar egiten diren jarduerak modulu-tako edukiak erlazionatzen dituzte, eta modu globalizatuan lantzen dira.

1. Modulua.- Lege- eta Administrazio-esparrua

1. Antolaketa eta arau-hierarkia.
2. Adingabeen babesari buruzko araudia.
3. Curriculum eta ikasleen aniztasuna.
4. Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua.
5. Datuen babesa.
6. Hezkuntza-ebaluazioa.

2. Modulua.- Ikastetxe publikoen antolaketa eta kudeaketa

1. Dokumentazio instituzionala.
2. Zuzendaritzaren eta zuzendaritza-taldearen eginkizunak eta ardurak.
3. Finantza- eta aurrekontu-araudiak eta kontratazio publikoari buruzkoa.
4. Antolaketa kudeatzeko tresna informatikoak.
5. Estrategia. Plangintza- eta koordinazio-egiturak.
6. Ikastetxeko proiektuak. Autonomia.
7. Irudi instituzionala, lankidetzaren eta ikastetxearen kanpo-sustapena.

3. Modulua.- Ikastetxearen kudeaketa, ikasi egiten duen hezkuntza-erakunde gisa

1. Curriculumaren alderdi esanguratsuenak.
2. Curriculum-ereduak eta pedagogia aktiboak.
3. Ikasleen prestakuntza-ebaluazioa.
4. Irakasleen prestakuntza.
5. Hezkuntza-berrikuntza.
6. Taldekako lana eta sareko lana.
7. Irakaskuntza-praktikaren ebaluazioa.
8. Gatazken prebentzioa eta kudeaketa positiboa. Bizikidetzaren hobetzeko programak.
9. Inklusioa, ekitatea eta gizarte-justizia eskola-antolaketan eta irakaskuntza-praktikan.
10. Eskola-komunitateak ikastetxeko bizitzan modu aktibo eta errealean parte hartzea.

4. Modulua.- Baliabideen kudeaketa.

1. Kudeaketa administratibo eta ekonomikoa.
2. Pertsonekin lan eginez: Irakasleak eta irakasle ez diren langileak.
3. Espazioen eta denboraren kudeaketa.
4. Digitalizazioa, ikaskuntza-prozesuen hobekuntzaren zerbitzuan jarrita, esparru inklusibo, ekitatibo, sozialki bidezko eta jasangarri batean. Identitate digitala.
5. Ikastetxeko laguntza-zerbitzuak.
6. Zerbitzu eta jardueraren osagarriak.
7. Europako hezkuntza-programak.
8. Laneko arriskuen prebentzioa.

5. Modulua.- Zuzendaritza eraldatzaile, berritzaile eta eraginkorrerako funtsezkoak diren faktoreak.



1. Kudeaketatik hezkuntza-lidergora.
 2. Lidergo-eredu eta –estiloak.
 3. Ikaskuntza eta eraldaketarako lidergoa.
 4. Gizarte-trebetasunak ikastetxeetako lidergoan.
 5. Pertsonen arteko komunikazioa eta talde adimendunen funtzionamendua. Jarrerak, balioak eta autorregulazio pertsonala.
 6. Praktika-komunitateak.
 7. Hurbilpen bat hezkuntza-lidergoaren eta eskola-antolaketaren europar joeretara.
6. Modulua.- Hezkuntza-kalitatea eta ebaluazioa.
1. Ikastetxeen autoebaluazioa eta koebaluazioa. Tresnak.
 2. Plangintza estrategikoa.
 3. Autonomia, gardentasuna eta lorpenaren adierazleak.
 4. Hobekuntza-planak.
 5. Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzen ebaluazioa. Barneko eta kanpoko proben aplikazioaren kontrastea.
7. Modulua.- Zuzendaritza-proiektua eta beraren jarraipen eta eguneraketa.
1. Proiektuaren justifikazioa.
 2. Zentroaren diagnosi-azterketa. Indarguneak eta hobetzeko arloak hautematea.
 3. Proiektuaren helburuak eta zuzendaritza-taldeen eskumen-esparruarekiko harremana.
 4. Jarduketa-planak eta horien denboralizazioa.
 5. Zuzendaritza-proiektuaren komunikazio-plana.
 6. Zuzendaritza-proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza: lorpen-adierazleak.



V. Eranskina

Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoren edukiak (ZEB KEPPE).

Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko oinarrizkotzat jotzen diren edukiak 6 modulutan daude antolatuta. Ikastaroan egiten diren jarduerak moduluen edukiak erlazionatzen dituzte elkarrekin, eta, hortaz, modu globalizatuan lantzen dira.

1. Modulua.- Lege- eta Administrazio-esparrua

1. Ikastetxe publikoei aplikatzekoa den arau-esparruaren eguneraketa. Adingabeen babesari buruzko araudia.
2. Hezkuntza-ebaluazioa.

2. Modulua.- Ikastetxe publikoen antolaketa eta kudeaketa.

1. Zuzendaritzaren, zuzendaritza-taldearen eta irakasleen eginkizunak eta ardurak.
2. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.
3. Irudi instituzionala, lankidetzeta eta ikastetxearen kanpo-sustapena.

3. Modulua.- Ikastetxearen kudeaketa, ikasi egiten duen hezkuntza-erakunde gisa

1. Pedagogia aktiboak, Ikasleen prestakuntza-ebaluazioa, Irakasleen prestakuntza, Taldekako lana eta Irakaskuntza-praktikaren ebaluazioa.
2. Gatazken prebentzioa eta kudeaketa positiboa. Bizikidetzeta hobetzeko programak. Inklusioa, ekitatea eta gizarte-justizia eskola-antolaketan eta irakaskuntza-praktikan.
3. Eskola-komunitateak ikastetxeko bizitzan modu aktibo eta errealean parte hartzea.

4. Modulua.- Baliabideen kudeaketa. Hezkuntza-kalitatea eta ebaluazioa.

1. Giza baliabideen kudeaketa. Espazioak eta denbora. Jardunbide egokiak.
2. Autonomia, gardentasuna eta lorpenaren adierazleak. Hobekuntza-planak.
3. Digitalizazioa, ikaskuntza-prozesuen hobekuntzaren zerbitzuan jarrita, esparru inklusibo, ekitatibo, sozialki bidezko eta jasangarri batean. Identitate digitala.

5. Modulua.- Zuzendaritza eraldatzaile, berritzaile eta eraginkorrerako funtsezkoak diren faktoreak.

1. Hezkuntza-lidergoa. Lidergo konpartitua / banatua.
2. Ikaskuntzarako lidergoa. Jardunbide egokiak.
3. Gizarte-trebetasunak ikastetxeetako lidergoan.
4. Jarrerak, balioak eta autorregulazio pertsonala.

6. Modulua.- Zuzendaritza-proiektua eta beraren jarraipen eta eguneraketa.

1. Proiektuaren justifikazioa.
2. Zentroaren diagnosi-azterketa. Indarguneak eta hobetzeko arloak hautematea.
3. Proiektuaren helburuak eta zuzendaritza-taldearen eskumen-esparruarekiko harremana.
4. Jarduketa-planak eta horien denboralizazioa.
5. Zuzendaritza-proiektuaren komunikazio-plana.
6. Zuzendaritza-proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza: lorpen-adierazleak.



VI. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko programa espezifikoaren (ZEB_HPPE) prestakuntza-jarduerak.⁴
Eranskin honetan zerrendatzen diren jarduerak 2022-2023 ikasturterako programaren (ZEB_HPPE) hezurdurari egiten diote erreferentzia.

Prestakuntza-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa Ebazpen honetako 4. artikuluan –*Prestakuntza-programen betekizun orokorrak: ZEB_HPPE eta ZEB_KEPPE prestakuntza-programak* - ezarritakoari jarraituz egingo da. Programa honen prestakuntza-eskaintza aldizka berrikusi eta eguneratuko da, eta Ebazpen honetako 10. eta 13. artikuluetan ezarritako prozeduren bidez jakinaraziko da.

Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (ZEB_HPPE)

Izenburua	Arduraduna	Ordu kopurua guztira	Mota	Modalitatea	Zeregina	Derrigorrezkoa / Hautazkoa
Hasierako: prestakuntza	BN_LPHE_E ⁵	20: - 15 P - 5G	I	P	G	D
Prestakuntza: Zuzendaritza-proiektua egiten laguntzeko ikastaroa	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I:	P	G	D
Hasierako prestakuntza: sakontze-fasea	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I:	P	G	D
Hasierako prestakuntza. finkatze-fasea	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I	P	G	H

⁴ Prestakuntza-jarduera mota : I: ikastaroa; M: mintegia; PK: praktika-komunitateak; TM: prestakuntza-topaketa monografikoa; NP: nazioartekotze-programa; E: prestakuntza-egonaldia beste ikastetxe batzuetan; T: hezkuntza-arlokoak ez diren inguruneetan lidergoa duten pertsonen arteko topaketa. Irakasteko modalitatea: P: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetan ematea; D: jarduera aurrez aurre eta irakastorduetatik kanpo ematea; H: online jarduera ematea; HS: modalitate sinkronoa; HAS: modalitate asinkronoa; I: jarduera modu hibridoan ematea (aurrez aurre eta online). Jardueraren zereginak: G. txostena eta/redo memoria egitea; F: Ikastetxean praktika bat egitea.

⁵ Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-erlaketaren Esparrua.



Izenburua	Arduraduna	Ordu kopurua guztira	Mota	Modalitatea	Zeregina	Derrigorrezkoa / Hautazkoa
Ikastetxeei publikoei aplikatzekoa den Arau-esparrua.	Hezkuntza- ikuskaritza	10	M	P	-	D
Ikastetxeen kudeaketa: lurraldeetako hezkuntza-ordezkaritzak eta haien zerbitzuak	Lurraldeetako Hezkuntza Ordezkaritzak	10	M	P	---	D
Zuzendarien mintegiak	Berritzeguneetako Zuzendaritzak	15	S	P	G	H
Zuzendarien praktika-komunitateak	BN_LPHE-E	40	PK	P	R	H
Monografikoak			M			H



VII. Eranskina: Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoaren (ZEB_KEPPE) prestakuntza-jarduerak.⁶ Eranskin honetan zerrendatzen diren jarduerak 2022-2023 ikasterterako programaren (ZEB_KEPPE) eskeletoari egiten diote erreferentzia.

Prestakuntza-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa Ebazpen honetako 4. artikuluan –*Prestakuntza-programen betekizun orokorrak: ZEB_HPPE eta ZEB_KEPPE prestakuntza-programak* - ezarritakoari jarraituz egingo da. Programa honen prestakuntza-eskaintza aldizka berrikusi eta eguneratuko da, eta ebazpen honetako 10. eta 13. artikuluetan ezarritako prozeduren arabera jakinaraziko da.

Izenburua	Arduraduna	Ordu kopurua guztira	Mota	Modalitatea	Zeregina	derrigorrezko / hautazkoa
Zuzendarien praktika-komunitateak	BN_LPHE_E	40	PK	P	R	H 20 ordu D 20 ordu
Ikastetxeei aplikatzeko den arau-esparrua (maila aurreratua)	Hezkuntza-ikuskaritza	5	M	P	--	D
Hasierako prestakuntza: oinarrizko fasea	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I	P	G	H
Prestakuntza: zuzendaritza-proiektuan laguntzeko ikastaroak	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I	P	G	D

⁶ Prestakuntza-jarduera mota : I: ikastaroa; M: mintegia; PK: praktika-komunitateak; TM: prestakuntza-topaketa monografikoa; NP: nazioartekotze-programa; E: prestakuntza-egonaldia beste ikastetxe batzuetan; T: hezkuntza-arlokoak ez diren inguruneetan lidergoa duten pertsonen arteko topaketa. Irakasteko modalitatea: P: jardueraren aurrez aurre eta irakastorduetan ematea; D: jardueraren aurrez aurre eta irakastorduetatik kanpo ematea; H: online jardueraren ematea; HS: modalitate sinkronoa; HAS: modalitate asinkronoa; I: jardueraren modu hibridoan ematea (aurrez aurre eta online). Jardueraren zereginak: G. txostena eta/redo memoria egitea; F: Ikastetxean praktika bat egitea.



Izenburua	Arduraduna	Ordu kopurua guztira	Mota	Modalitatea	Zeregina	derrigorrezk oa / hautazkoa
Hasierako prestakuntza: sakontze-fasea	BN_LPHE_E	20: - 15 P - 5G	I	P	G	D
Hasierako prestakuntza: finkatze-fasea	BN	20: - 15 P - 5G	I	P	G	D
Ikastetxeen kudeaketa:: lurraldeetako hezkuntza-ordezkaritzak eta haien zerbitzuak	Lurraldeetako Hezkuntza Ordezkaritzak	10	M	P	---	D
Zuzendarien mintegiak	Zonetako Berritzeguneetako Zuzendaritzak	15	M	P	G	D



ZUZENDARIENTZAKO MINTEGIAK

Ikastetxearen tipologia	Ikastetxearen kokapena	Mintegiaren lekua	Egutegia, Aldizkakotasuna eta ordutegia	Koordinatzailea
HHI eta HLHI ⁷	A01 eta A02 Eraginguneak	Gasteizko Berritzegunea	Hilerokoa	Aitor Santxo
	B01-B02 Eraginguneak	Bilboko udaltegiak (Errekalde/Basurto). Tokia zehaztuko da deialdi bakoitzean.	Hilabete bakoitzaren hirugarren osteguna (9:30 - 11:30): Azaroak 17	Isortze Del Valle Ana Alonso
	B03 Eragingunea	Sestaoko Berritzegunea	Abenduak 15	M ^{re} Jesus Torre
	B04 eta B05 Eraginguneak	Barakaldoko Berritzegunea	Urtarrilak 19	Ana Iturbe
	B06 Eragingunea ⁸	Galdakaoko Berritzegunea	Otsailak 16	Begoña Garamendi
	B07 eta B08 Eraginguneak	Getxoko Berritzegunea	Martxoak 16	Anabel Oleagoitia
	B09 Eragingunea	Durangoko Berritzegunea	Maiatzak 18	Jabier Azpitarte
	B10 Eragingunea	Gernika-Lumoko Berritzegunea		Laura Uruburu
	G01 Eragingunea	Donostiako Berritzegunea		Ana Elorza
	G02 Eragingunea	Irungo Berritzegunea		Marivi Fernandez

⁷ Eskola Txikien sareko ikastetxeak izan ezik.

⁸ Galdakaoko Berritzegunean (B06): HHLHn hileko azkeneko ostegunean. Ordutegia bera da.



	G03 eta G04 Eraginguneak	Eibarko eta Ordiziako Berritzeguneak (txandakatuz)		Iñaki Ruiz
	G05 Eragingunea	Zarautzeko Berritzegunea		Uxue Berridi
	G06 Eragingunea	Lasarte-Oriako Berritzegunea		Oscar Viguera

Ikastetxearen tipologia	Ikastetxearen kokapena	Mintegiaren lekua	Egutegia, Aldizkakotasuna eta ordutegia	Koordinatzailea
BHI eta HII	A01 eta A02 Eraginguneak	Gasteizko Berritzegunea	Hilerokoa	Aitor Santxo
	B01-B02 Eraginguneak	Bilboko udaltegiak (Errekalde/Basurto). Tokia zehaztuko da deialdi bakoitzean.	Hilabete bakoitzaren hirugarren ostegunean (12:00 - 14:00): Azaroak 17	Isortze Del Valle Ana Alonso
	B03 Eragingunea	Sestaoko Berritzegunea	Abenduak 15	M ^a Jesus Torre
	B04 eta B05 Eraginguneak	Barakaldoko Berritzegunea	Urtarrilak 19	Ana Iturbe
	B06 Eragingunea ⁹	Galdakaoko Berritzegunea	Otsailak 16	Begoña Garamendi
	B07-B08 Eraginguneak	Getxoko Berritzegunea	Martxoak 16	Anabel Oleagoitia
	B09 Eragingunea	Durangoko Berritzegunea	Maiatzak 18	Jabier Azpitarte

⁹ Galdakaoko Berritzegunea (B06): BHIko mintegiak hileko hirugarren asteazkenean da. Ordutegia: 9:00-11:00



	B10 Eragingunea	Gernika-Lumoko Berritzegunea		Laura Uruburu
	G03 eta G04 Eraginguneak	Eibarko eta Ordiziako Berritzeguneak (txandakatuz)		Iñaki Ruiz
	G05 Eragingunea	Zarautzeko Berritzegunea		Uxue Berridi
	G06 Eragingunea	Lasarte-Oriako Berritzegunea		Oscar Viguera

Ikastetxearen tipologia	Ikastetxearen kokapena	Mintegiaren lekua	Aldizkakotasuna eta ordutegia	Koordinatzailea	Harremanetarako Datuak
HHE	EAE	Zehazteko dago	Hilerkoa	M ^a Luisa Domínguez Panchón	bnhelduenhezkuntza@berritzeguneak.eus
Irakaskuntza Bereziak ¹⁰		Zehazteko dago	Hilerkoa		
Eskola Txikiak		Eskola Txikien sareko programazioaren arabera (zuzendaritentzako mintegiak)			

¹⁰ Hizkuntza Eskolak, Kontserbatorioak, IDEARTE, KIROLENE, DANTZERTI



VIII. Eranskina: 2013ko urtarrilaren 19tik 2021eko urtarrilaren 19ra bitartean Hezkuntza Sailak emandako ikastaroak (zerrenda), ikastetxe publikoen zuzendaritzarako gaitasuna ematen dutenak.

IKASTURTE A	KODEA	IKASTAROAREN IZENBURUA
2012-2013	1270BGNC66	IKASTETXEAN ZUZENDARI ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA
2013-2014	1370BGNC50	ZUZENDARIA ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA (LASARTE)
2013-2014	1370BGNC51	ZUZENDARI ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA (BILBO)
2014-2015	1470BGNC57	ZUZENDARITZAN ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA (GIPIZKOA)
2014-2015	1470BGNC58	ZUZENDARITZAN ARITZEKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA (BIZKAIA)
2015-2016	1570BGNI36	IKASTETXEETAKO ZUZENDARIENTZAT OINARRIZKO FORMAZIOA (GIPIZKOA)
2015-2016	1570BGNI37	IKASTETXEETAKO ZUZENDARIENTZAT OINARRIZKO FORMAZIOA (BIZKAIA)
2015-2016	1570BGNI38	IKASTETXEETAKO ZUZENDARIENTZAT OINARRIZKO FORMAZIOA (ARABA)
2017-2018	1770BGNI106	ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA (GIPIZKOA)
2017-2018	1770BGNI107	ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA (ARABA)
2017-2018	1770BGNI108	ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA (BIZKAIA)
2019-2020	1970BGNC4Z	Ikastetxe publikoetako zuzendariak. 2019-2020 formazio-programa. BIZKAIA
2019-2020	1970BGNC7Z	Ikastetxe publikoetako zuzendariak. 2019-2020 formazio-programa. ARABA
2019-2020	1970BGNC8Z	Ikastetxe publikoetako zuzendariak. 2019-2020 formazio-programa. GIPIZKOA
2021-2022	2170BGNI03	IKASTETXEKO ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA (BIZKAIA)
2021-2022	2170BGNI04	IKASTETXEKO ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA (GIPIZKOA)
2021-2022	2170BGNI05	IKASTETXEKO ZUZENDARIEN HASIERAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA (ARABA)



IX. Eranskina: ZEB_HPPE Programaren jarduera jakin batzuk ez egitea eta ez ebaluatzea ahalbidetzen duen salbuespena eskatzeko ereduia.

Zuzendaritza-eginkizuna garatzeko kompetentziei buruzko prestakuntza

DATU PERTSONALAK

NAN/AIZ		Izena	
1. abizena		2. abizena	
Helbide elektronikoa			
Posta-helbidea			
Posta-kodea		Herria	
Udalerria		Telefono mugikorra	

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

- 1.HLOaren 135. artikulua ezartzen duenez, ikastetxe bateko zuzendaritzarako aukeraketa-prozedura gainditu duenak zuzendaritza-eginkizuna garatzeko kompetentziei buruzko prestakuntza-programa bat gainditu beharko du bere izendapenaren aurretik.
- 2.HLOaren 136. artikulua ezartzen duenez, administrazioak zuzendari izendatuko du zuzendaritza-eginkizuna gartzeko kompetentziei buruzko prestakuntza-programa bat gainditu duen pertsona.
- 3.Orobat, Legeak adierazten du salbuespenak ezarriko direla horrelako prestakuntza-ikastaroak hautagai aurkeztu baino lehen egin dituzten izangaiantzat, edo zuzendaritza-eginkizuna betetzeko lanetan esperientzia -ebaluazio positiboarekin- egiaztatzen dutenentzat.

Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko beharrezkoa den hasierako eta etengabeko prestakuntzaren esparrua ezarri eta zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko Prestakuntza-programa espezifiko eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko Prestakuntza-programa espezifiko 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako arautzen dituen Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzaren 2022ko urriaren 28ko EBAZPENAREN 8. artikuluan hasierako prestakuntza-programarako agertzen diren salbuespen eta baliozkotzeei dagokienez.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

	Ikastetxeen zuzendaritza eta kudeaketari buruzko Master edo graduondoko titulu ofizial bat lortu dut. Titulu hori eskabide honi erantsita aurkezten dut.
	Ikastetxe publikoen zuzendaritzarako ziurtagiria dut, 2013ko urtarrilaren 19tik eta 2021eko urtarrilaren 19ra bitartean emanda; izan ere, lehen eta 2022ko urriaren xx(e)ko Ebazpenaren VII. Eranskinean aipatutako daten artean Hezkuntza Sailak eman zituen eta ikastetxe publikoen zuzendaritzarako gaitzen duten ikastaroetako baten ziurtagiria dut. Administrazioak ziurtagiri hori egiazta dezake ofizioz.
	Badut esperientzia zuzendaritza-eginkizuna betetzeko lanetan, nire zereginaren gutxienez ebaluazio positibo batekin, eta administrazioak ofizioz egiazta dezake.
	Badut Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifiko bat gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagirira, zuzendaritza-eginkizuna garatzeko prestakuntza-ikastaroak eta zuzendaritza-kompetentziak eguneratzeko ikastaroak arautzen dituen Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren 2021eko ekainaren 18ko Ebazpenaren arabera. Administrazioak ofizioz egiazta dezake ziurtagiri hori.
	Ez dut betetzen aurretik aipatutako baldintzetako bat bera ere; horregatik, aukeraketa-prozedura gainditzen badut eta Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa



espezifikoa (ZEB_HPPE) egiazatzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduerak betetzera iristen ez banaiz, zuzendaria izendatua izanda ere, konpromiso hau hartzen dut: programa hori ekainean eta uztailean osatzea, eta/edo nire agintaldiko lehenengo urtearen lehenengo hiruhilekoan.
--

DATUEN BABESA

Espresuki baimentzen dut emandako datuak jaso eta tratatu daitezela Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloan eskumena duen Zuzendaritzaren titulartasunekoa den fitxategi batean – Zuzendaritzaren helbidea: Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz-, ikastetxeetako gobernu-organoak aukeratzeko, izendatzeko eta kargutik kentzeko prozesua kudeatzeko xedez.

Badakit edozein unetan erabil ditzakedala Legean aitortutako eskubideak, zehazki datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta haien tratamenduaren aurka agertzeko eskubideak, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari idazki bat bidaliz.

2023ko aren.....(e)(a)n

[sinadura]



X. Eranskina: Ikastetxeetako zuzendari ez diren pertsona bakarreko gobernu-organoei zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza-programen eduki espezifikoak.

Ikasketa-burutzarekin lotutakoak

1. Curriculum-proiektua
2. Irakaskuntza-jardueren programa
3. Jarduera akademikoen koordinazioa.
4. Ordu-tegi akademikoak prestatzea eta haien betearazpena gainbegiratzea.

Idazkaritzarekin lotutakoak

1. Ordezkaritza-organo gorenaren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren bileren eguneko gai-zerrendan sartu behar diren gaiak prestatzea, organo horien presidentek ezartzen duenarekin bat etorriz. Eta organo horien bileren akta egitea.
2. Aktak, espedienteak eta ikastetxearen dokumentazio propioa zaintzea eta bere organoen eskura izatea. Ikastetxearen material didaktikoa zaintzea.
3. Ikastetxeko egintza edo ebazpen eta akordio guztiak egiaztatzea, zuzendariaren oniritziarekin, eta baita ikastetxearen aurrekari, liburu eta dokumentu propioak ere.
4. Kudeaketa ekonomikoa.



XI. Eranskina: Ikastetxeetako zuzendari ez diren pertsona bakarreko gobernu-organoei zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza-programen prestakuntza ekintzak.

Eranskin honetako zerrendan agertzen diren jarduerak ikastetxeetako zuzendari ez diren pertsona bakarreko gobernu-organoei soilik zuzendutako hasierako eta etengabeko prestakuntza-programen eskeletoari egiten diote erreferentzia, 2022-2023 ikasturterako.

VI. eta VII. Eranskinetan jasotako hainbat prestakuntza-jarduera ere interesgarriak izan daitezke gobernu-organo horientzat. Egoera hori proposatutako jarduera bakoitzaren prestakuntza-fitxan jasoko da.

Prestakuntza-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa Ebazpen honetako 4. artikuluan – *Prestakuntza-programen betekizun orokorrak: ZEB_HPPE eta ZEB_KEPPE prestakuntza-programak* - ezarritakoari jarraituz egingo da. Programa honen prestakuntza-eskaintza aldizka berrikusi eta eguneratuko da, eta Ebazpen honetako 10. eta 13. artikuluetan ezarritako prozeduren bidez jakinaraziko da.

IKASKETA-BURUTZEI ETA IDAZKARITZEI ZUZENDUTAKO MONOGRAFIKOAK

1. Ikasleen ebaluazioa eta Dokumentazio Akademikoa.
2. Datuen babesa.
3. Dokumentu formalak idaztea.
4. Denbora-tarteak eta espazioak ikuspegi inklusibotik. .
5. Hezigunea ataria eta Hezkuntza-kudeaketarako Aplikazioak (hainbat prestakuntza-jarduera).
6. Bestelakoak...

MINTEGIAK ETA/EDO PRAKTIKA-KOMUNITATEAK: monografikoetan landutako gaietan oinarrituta, gai horiek garatzeko mintegiak eta/edo praktika-komunitateak jarri ahal izango dira abian.



XII. Eranskina: Zuzendaritza-taldeentzako laguntza eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak.

2022-2023 ikasturtean zuzendaritza-taldeei lagunduko dieten eragile nagusiak: zerbitzuak eta pertsonak

IKASTETXEAK		ZUZENDARITZA-TALDEEI LAGUNTZEN DIEN ZERBITZUA			LAGUNTZA-EREMUA
Ikastetxeen tipologia	Eragingunea	Zerbitzua	Harremanetarako pertsona	Harremanetarako datuak	
Haur Hezkuntzako ikastetxeak (HHI) eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (HLHI) ¹¹ Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI) eta Herri ikastetxe Integratuak (HII)	A01 + A02 Berritzeguneak	Zonetako Berritzeguneetako Zuzendaritzak	Eduardo Pérez Rodríguez	araba@berritzeguneak.eus	Lehenengo kontaktua, beharrezkoa den akonpainamendua edo laguntza eskatzeko. Harremanetarako pertsonak, ezin badio laguntza-eskariari erantzun, dagokion zerbitzura bideratuko du eskaria.
	B01 + B02 Berritzeguneak		1. Isortze Del Valle Loroño 2. Ana Alonso Marigómez	1. b01zuzendaria@berritzeguneak.eus 2. b02zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	B03 + B04+B05 Berritzeguneak		1. M ^a Jesús Torre Ortiz 2. Ana María Iturbe Herrera	1. b03zuzendaria@berritzeguneak.eus 2. b05zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	B06 Berritzegunea		Begoña Garamendi Ibarra	b06zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	B07 eta B08 Berritzeguneak		Anabel Oleagoitia Zubieta	b07zuzendaria@berritzeguneak.eus	

¹¹ Eskola Txikien sareko ikastetxeak izan ezik.



IKASTETXEAK		ZUZENDARITZA-TALDEEI LAGUNTZEN DIEN ZERBITZUA			LAGUNTZA-EREMUA
Ikastetxeen tipologia	Eragingunea	Zerbitzua	Harremanetarako pertsona	Harremanetarako datuak	
Haur Hezkuntzako Ikastetxeak (HHI) eta Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak (HLHI) ¹² Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI) eta Herri Ikastetxe Integratuak (HII)	BO9 eta B10 Berritzeguneak		1. Javier Azpitarte Ariño 2. Laura Uruburu Totorikaguena	1. b09zuzendaria@berritzeguneak.eus 2. b10zuzendaria@berritzeguneak.eus	Lehenengo kontaktua, beharrezkoa den akonpainamendua edo laguntza eskatzeko. Harremanetarako pertsonak, ezin badio laguntza-eskariari erantzun, dagokion zerbitzura bideratuko du eskaria.
	G01 Berritzegunea		Ana Elorza Mendia	g01zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	G02 Berritzegunea		Marivi Fernández Roldán	g02zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	G03 eta G04 Berritzeguneak		Bego Otsoa-Aizpurua Aguirre	G03zuzendaria@berritzeguneak.eus	
	G05 eta G06 Berritzeguneak		1. Uxue Berridi Puy 2. Oskar Viguera Rincón	1. G05zuzendaria@berritzeguneak.eus 2. G06zuzendaria@berritzeguneak.eus	
Eskola txikien sarekoak diren LHI eta HLHIak		Eskola Txikien sarearen koordinatzaileak			

¹² Eskola Txikien sareko ikastetxeak izan ezik.



IKASTETXEAK		ZUZENDARITZA-TALDEEI LAGUNTZEN DIEN ZERBITZUA			LAGUNTZA-EREMUA
Ikastetxeen tipologia	Eragingunea	Zerbitzua	Harremanetarako pertsona	Harremanetarako datuak	
HHI (helduen heziketa iraunkorra)	Araubide bereziko ikastetxeak ¹³	Berritzegune Nagusia (HHIrako eta Araubide berezirako aholkularitza)	M ^a Luisa Domínguez Panchón	bnhelduenhezkuntza@berritzeguneak.eus	Lehenengo kontaktua, beharrezkoa den akonpainamendua edo laguntza eskatzeko. Harremanetarako pertsonak, ezin badio laguntza-eskariari erantzun, dagokion zerbitzura bideratuko du eskaria.
Ikastetxe guztiak		Berritzegune Nagusia (Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren esparrua)	Begoña Otsoa-Aizpurua Aguirre	bnlidergoa@berritzeguneak.eus	Prestakuntza-programekin lotutako alderdiak.
Ikastetxe guztiak		Lidergo Pedagogiko eta Hezkuntza-eraldaketaren Esparruko Idazkaritza)	Sara Esteban Piudo	bnidazkaritza@berritzeguneak.eus	Prestakuntza-jardueretarako izena ematearekin lotutako alderdiak.



IKASTETXEAK		ZUZENDARITZA-TALDEEI LAGUNTZEN DIEN ZERBITZUA			LAGUNTZA-EREMUA
Ikastetxeen tipologia	Eragingunea	Zerbitzua	Harremanetarako pertsona	Harremanetarako datuak	
Ikastetxe guztiak	Araba	Lurraldeetako Hezkuntza Ordezkaritzaren Berrikuntza Zerbitzuak	Isabel Rejado Vigalondo	huisare3@euskadi.eus	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-jardueren ziurtagiriekin lotutako alderdiak. • ZEB_HPPE eta ZEB KEPPE programen zati batetik salbuetsita geratzearekin lotutako alderdiak.
	Bizkaia		Lore Aretxaga Bedialauneta	huisbber@euskadi.eus	
	Gipuzkoa		Juanjo Agirrezabala Mantxola	jj-agirrezabala@euskadi.eus	
	EAE	Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren Prestakuntza Zerbitzua	Sebas Martin Moreno	huisppro@euskadi.eus	ZEB_HPPE eta ZEB KEPPE programen ziurtapenarekin eta balizko luzapenekin lotutako alderdiak.